

2020 / 2021 ikasturtea

ERIZAINAREN ESKU-HARTZEA ZAINKETA INTENTSIBOETAKO UNITATE OSTEKO SINDROMEAREN PREBENTZIOAN

UXUE ALARGUNSORO MURUAMENDIARAZ

LABURPENA

SARRERA. Zainketa Intentsiboetako Unitate Osteko Sindromea (ZIU-OS), Zainketa Intentsiboetako Unitatean (ZIU) ingresatuta egoteak eragindako kognizioaren asaldura, adierazpen psikiatriko eta urritasun fisikoen multzoa da, alta ondoren pazientearen bizi kalitatean eta epe luzeko pronostikoan eragiten duena. Sindrome honen agerpenerako arrisku faktore nagusiak, mina, gehiegizko sedazioa, aireztapen mekanikoa, eldarnioa eta mugiezintasuna dira, ZIUan esku-hartze egoki batekin prebeni daitezkeenak.

HELBURUA. ZIUan ospitaleratuta dagoen paziente helduan, ZIU-OS ebaluatu eta prebenitzeko edo gaixoaren pronostikoa hobetzeko erizainak erabil ditzakeen tresna klinikoak aztertzea.

METODOLOGIA. Errebisio bibliografikoa egin da. Horretarako, *Pubmed*, *Biblioteca Virtual de la Salud (BVS)*, *Trip Database*, *Dialnet*, *Cochrane*, *Cuiden* eta *Scopus* datu-baseak erabili dira. Honez gain, informazio gehiago lortzeko, gaiarekin erlazio zuzena duten web-orri eta liburuak kontsultatu dira. Honela, lanerako erabilgarriak izan diren 37 dokumentu lortu dira.

EMAITZAK. Azken urteetan ZIUetan ZIU-OS prebenitzeko hainbat osagai anitzeko eta disziplina arteko estrategien erabilera martxan jarri da. Bertan erizainaren ardura, balidatutako eskalak erabiliz, min, sedazio eta eldarnioaren ebaluazio jarraiak eta kudeaketa koordinatu bat bermatzea, mobilizazio goiztiarra inplementatzea eta familia gaixoaren zainketetan integratzea da, besteak beste. ZIUko egunerokoen erabilera ere osasun mentaleko arazoaren prebentzioan ondo ikertutako tresna kliniko bat da. ZIUko altan, berriz, erizainak jarraipena behar duten pazienteen identifikazio egokia burutuko du baliagarriak diren eskala desberdinak erabiliz.

EZTABAIDA. Prebentzio neurririk egokiena inplementaziorako taldekatutako ikuspegi bat da. Eztabaida, azaleko sedazioa nahiz errehabilitazio goiztiarra definitzerakoan dago, baita azaleko sedazio hori lortzeko esku-hartze eta errehabilitazio goiztiarraren eraginkortasunean ere. Egunerokoak garatzeko estrategia falta eta orokorrean ikerketa gehiagoren beharra azpimarratzen da. Neurri farmakologikoen eraginkortasunean, berriz, bateratasun nabarmen bat topatu da.

ONDORIOAK. Osagai anitzeko estrategiak, egunerokoak eta eskalak, tresna kliniko baliagarriak dira ZIU-OS ebaluatu eta prebenitzeko. Hala ere, arlo hau gehiago ikertzeko, ikerketa-irizpideen estandarizazioa garrantzitsua dela ikusi da.

Hitz gakoak: ZIU osteko sindromea, erizaintzako zainketak, prebentzioa, tresna klinikoak.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. HELBURUAK.....	2
3. METODOLOGIA	3
3.1. Bilaketa bibliografikoaren estrategia.....	3
3.2. Bilaketa bibliografikoaren emaitzak	5
3.2.1. Lehen mailako bilaketa bibliografikoa	5
3.2.2. Bigarren mailako bilaketa bibliografikoa	6
3.2.3. Aukeratutako dokumentuen ezaugarriak	6
4. EMAITZAK.....	7
4.1. ABCDEF sorta eta erizainaren esku-hartzea	8
4.2. ZIUko egunerokoak.....	20
4.3. Eskalak	21
5. EZTABAIDA	21
6. ONDORIOAK.....	24
7. BIBLIOGRAFIA.....	26
8. ERANSKINAK.....	31

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia. Alper eta Haynesen piramidea.....	7
2. irudia. eCASH diagrama..	13
3. irudia. Erizainak bideratutako mobilizazio protokoloa..	18

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula. Artikuluak bilatzeko aukeratutako deskriptore eta hitz-gakoak.	3
2. taula. Bilaketa bibliografikoan erabilitako barneratze-kanporatze irizpideak.....	5

ERANSKINEN AURKIBIDEA

1. eranskina. Datu baseetan lortutako emaitzak..	31
2. eranskina. Web orrietan lortutako emaitzak..	34
3. eranskina. Bigarren mailako bilaketa bibliografikoaren emaitzak.	34
4. eranskina. Errebisorako erabilitako artikuluak eta horien ezaugarri nagusiak.....	35
5. eranskina. EEP eta AEPen arteko koordinazioa.....	41
6. eranskina. Errehabilitazio fisikoa hasteko eta geratzeko segurtasun irizpideen laburpena.....	42
7. eranskina. ZIUko egunerokoak idazteko estrategiak.....	43
8. eranskina. <i>The post-intensive care syndrome questionnaire (PICSQ)</i>	44

9. eranskina. <i>Health Aging Brain Center Monitor Self-report version (HABC-M SR)</i> ..	44
10. eranskina. ZIU-OSaren prebentzio neurrien implementazioa neurtzeko galdetegia	45

LABURDURAK

AACN: *American Association of Critical-Care Nurses.*

ABCDEF: *Assess, Prevent, and Manage Pain, Both Spontaneous Awakening Trials and Spontaneous Breathing Trials, Choice of analgesia and sedation, Delirium: Assess, Prevent, and Manage, Early mobility and Exercise, and Family engagement and empowerment.*

AEP: *arnaste espontaneoko probak.*

AHRQ: *Agency for Healthcare Research and Quality.*

BPS: *Behavioral Pain Scale.*

BVS: *Biblioteca Virtual de la Salud.*

CAM-ICU: *The Confusion Assessment Method-Intensive Care Unit.*

CPOT: *Critical-Care pain Observation Tool.*

DeCS: *Descriptores en Ciencias de la Salud.*

eCASH: *Early Comfort using Analgesia, minimal Sedatives and maximal Human care.*

EEP: *esnatze espontaneoko probak.*

HABC-M SR: *The Healthy Aging Brain Care Monitor Self-report.*

ICDSC: *The Intensive Care Delirium Screening Checklist.*

MeSH: *Medical Subject Headings.*

NRS: *Numeric Rating Scale.*

PADIS Guidelines: *Clinical Practice Guidelines for the Prevention and Management of Pain, Agitation/Sedation, Delirium, Immobility, and Sleep Disruption in Adult Patients in the Intensive Care Unit.*

PICSQ: *The post-intensive care syndrome questionnaire.*

RASS: *Richmond Agitation and Sedation Scale.*

SEEIUC: *Sociedad Española de Enfermería Intensiva y Unidades Coronarias.*

TOE: *Trauma Osteko Estresa.*

ZIU: *Zainketa Intentsiboetako Unitatea.*

ZIU-OS: *Zainketa Intentsiboetako Unitate Osteko Sindromea.*

1. SARRERA

Tratamendu medikoaren mugak zabaltzeak eta teknologia mediku berritzaileek gero eta gaixo gehiagok gaixotasun kritikoei aurre egitea ahalbidetu dute, biziraupen tasa % 80-90era igoaz (1-4), eta honek bide batez Zainketa Intentsiboetako Unitatean (ZIU) tratatutako pazienteen kopurua gero eta handiagoa izatea ekarri du (3).

ZIUan alta eman ondoren, gaixoek sintoma fisiko, mental eta kognitibo iraunkorrak izaten dituzte maiz (3), 2010ean, *Society of Critical Care Medicine*-ek (SCCM) ZIU osteko sindrome (ZIU-OS) gisa deskribatu zituenak (3,5). Sindrome honek, ZIUko harrera osteko 24-48 ordu bitartean agertzen has daitezkeen (6) eta alta osteko 5 urte edo gehiagotan mantendu daitezkeen kognizioaren asaldura, adierazpen psikiatriko eta gaitasun fisikoak barne hartzen ditu (2,6), bizirik dirautenen % 25-50ari eraginez (7).

Narriadura fisikoak, gaixoen % 25-80engan gertatzen dira (8). Ondorio esanguratsuena ZIUan eskuratutako ahultasuna da, gorputz-adarretan patroia simetrikoan ematen den giharren ahultasun akutu gisa definitzen dena (2,6). Ahultasun honek, eguneroko jardueretarako indarra berreskuratzeko ahalegin handia egin behar izatea suposatzen du (1,5,7,9). Honez gain, gaixo hauek arnasketa, mugikortasuna, mina, fatiga eta pisu nahiz apetitu galera bezalako arazoak ere izaten dituzte (1). ZIUko arrisku faktore nagusien artean, esteroideen erabilera, hiperglizemia, aireztapen mekanikoa, sepsia eta mugiezintasuna daude (5).

Urritasun kognitiboak, aldiz, gaixoen % 30-80ean agertzen dira, larritasuna aldakorra izanik (8, 10). Gaixo larriek estres fisiko eta psikologiko handia pairatzen dute ZIUan eta bizipen horiek eguneroko funtzionamendu eskas eta bizi-kalitate murriztuarekin lotzen den adimen urritasuna eragiten dute (2), besteak beste, oroimen urritasuna, informazioa prozesatzeko abiadura edo arreta arazoak (10) eta eguneroko bizitzako jarduera instrumentaletan mendekotasuna eraginez (11). Urritasun hauek hiperglizemia edo hipoglizemia luze, aldez aurretiko defizit kognitibo, eldarnio (10), aireztapen mekaniko (5,7,8,12) eta sedazioarekin (7,8,12) lotzen dira.

Gaixotasun mentalen artean, aldiz, depresioa, antsietatea eta trauma osteko estresa (TOE) dira nagusienak (1,2,5,7-10,13). Depresioa bizirik dirautenen % 30ean ematen da, antsietatea % 70ean eta TOE % 10-50ean (2). Min fisiko eta ondoez fisikoekiko errepikapenezko esposizioak, sedazio luze edo eldarnioaren ondorioz sortzen den desorientazio eta nahasmendu sentimendu orokorrek (10), sintoma psikiatrikoen

aurrekari pertsonalak (2,5-8,10,12), adin gazteak (5,7,8,10), sexu femeninoak (2,5-8,10), ZIUko egonaldiarekiko oroitzapen eskasek (5,8,10,12) eta lasaigarrien erabilerak (6-8,10) epe luzera osasun mentaleko ondorioak izateko arriskua areagotzen dute (10). Loaren asaldura edo insomnia ere ohikoa da (1).

Hala ere, arazo nahiz urritasunak elkarri lotuta daude eta askotan, banaezinak dira (1,5), bakoitzak bestean eragina izan baitezake (11).

Azken hamarkadetan osasun profesionalek, zainketa intentsiboetan, ZIU-OSa prebenitzeko ebidentzian oinarritutako praktiken erabilera bultzatu dute (1-3). Horietako bat, Mina Ebaluatu, Prebenitu eta Kudeatu, Esnatze Espontaneoko Probak (EEP) eta Arnaste Espontaneoko Probak (AEP), Analgesia eta Sedazioaren Aukeraketa, Eldarnioa Ebaluatu, Prebenitu eta Kudeatu, Mugikortasun eta Ariketa Goiztiarra, eta Familiaren Konpromisoa eta Ahalduntzea da, ingelesez *Assess, Prevent, and Manage Pain, Both Spontaneous Awakening Trials and Spontaneous Breathing Trials, Choice of analgesia and sedation, Delirium: Assess, Prevent, and Manage, Early mobility and Exercise, and Family engagement and empowerment*. Laburdura bezala, ABCDEF sorta erabiltzen da (1-3,10,14,15). Bestalde, asaldura mentalei erreferentzia egiten dien esku-hartzeen artean ZIUko eguneroak daude (1-3,5). ZIUko altan, berriz, erizainaren zeregina jarraipen sakonagorik behar duten pazienteak identifikatzea izango da (4).

ZIU-OSak gaixoaren bizi kalitatean izan dezakeen eragina aztertuta eta erizainak bere egunerokotasuneko jardueran sindrome hau prebenitzeko edota pronostikoa hobetzeko praktikan jar ditzakeen baliabideak badaudela ikusita, interesgarria izango litzateke esku-hartze horiek aztertzea. Gainera, Covid-19 pandemia garai honetan sindrome hau pairatzeko arriskua igo egin dela jakinda, Erizaintza alor hau barneratzea aberasgarria izan daiteke (16).

2. HELBURUAK

Lan honekin ondorengo helburua lortu nahi da: ZIU ospitaleratuta dagoen paziente helduan, ZIU-OSa ebaluatu eta prebenitzeko edo gaixoaren pronostikoa hobetzeko erizainak erabil ditzakeen tresna klinikoak aztertzea.

3. METODOLOGIA

Ezarrirako helburuak lortzeko, literatura zientifikoan aurkitutako informazioaren errebisio bibliografikoa egin da.

3.1. Bilaketa bibliografikoaren estrategia

Bilaketa bibliografikoa gauzatzeko *Patient, Intervention, Outcome* (PIO) egitura ezarri da eta lanak erantzuna emango dion galdera nagusi bat ondorioztatu da:

- P (*patient/pazientea*): ZIU-OSa pairatzeko arrisku altua duen paziente heldua.
- I (*intervention/interbentzioa*): erizainak ZIU-OSaren ebaluazio eta prebentziorako erabili ditzakeen tresna klinikoak.
- O (*outcomes/ emaitza*): ZIU-OSaren prebentzioa eta gaixoaren pronostikoa hobetzea.

PIO egitura erabiliz ondorengo galdera hau planteatzen da: zein tresna kliniko erabil ditzake erizainak ZIU-n dagoen paziente helduan ZIU-OSaren ebaluazio eta prebentziorako edo gaixoaren pronostikoa hobetzeko?

Behin egitura zehaztuta, hitz gakoak eta *Descriptores en Ciencias de la Salud* (DeCS) eta *Medical Subject Headings* (MeSH) deskriptoreak lortu dira (ikus 1. taula).

1. taula. Artikuluak bilatzeko aukeratutako deskriptore eta hitz-gakoak.

PIO egitura	DeCS	MeSH	Hitz Gakoak
P (Patient)	<i>Resultados de cuidados críticos</i> <i>Enfermedad crítica</i> <i>Factores de riesgo</i>	<i>"Postintensive care syndrome"</i> <i>[supplementary concept]</i> <i>Critical care outcomes</i> <i>Risk factors</i>	<i>Síndrome post cuidados intensivos / Síndrome post-UCI</i> <i>Post intensive care syndrome / Post-ICU syndrome</i>
I (Intervention)	<i>Atención de enfermería</i> <i>Enfermería de cuidados críticos</i>	<i>Nursing Care</i> <i>Critical care nursing</i>	<i>Enfermería / Nursing</i> <i>Herramienta clínica / Clinical tool</i>
O (Outcomes)	<i>Prevención y control</i>	<i>Prevention and control</i>	<i>Prevención / Prevention</i> <i>Preventive strategies</i>

Bilaketa bibliografikoa gauzatzeko osasun-zientzietako datu-base desberdinak kontsultatu dira: *Pubmed*, *Biblioteca Virtual de la Salud (BVS)*, *Triip Database*, *Dialnet*, *Cochrane*, *Cuiden* eta *Scopus*. Bilaketa egitean, aipatutako hitz gako eta deskriptoreak AND eta OR operatzaile bolearrekin konbinatu dira eta hainbat iragazki erabili dira bilaketa zehazteko:

- Azken 5 urteetan egindako argitalpena izatea, informazio gaurkotuena biltzeko.
- Hizkuntzari dagokionez, ingelesez, gaztelaniaz nahiz frantsesez idatzitako artikulak izatea.

Bestalde, aipatutako iragazki horiek erabiltzeaz gain, hainbat bilaketetan aurkitutako artikuluen zarata handia zela eta, datu-basearen arabera hainbat filtro gehiago ezarri dira. BVSn artikuluen gai nagusia *Enfermería de cuidados críticos* edo *Unidades de cuidados intensivos* izatea eta ikerketa mota *Systematic Review*. *Pubmeden* artikulua mota *Systematic Review* edo *Nursing journal* eta eskuragarritasunari lehentasuna eman zaio. *Scopus-en* gai nagusia: *Nursing*.

Bilaketa egiterakoan “ZIU osteko sindromea” termino berria denez, *Pubmed* datu baseak izan ezik gainontzeko datu baseek ez dute deskriptore gisa identifikatzen, beraz ez da DeCS edo MeSH deskriptorerik aurkitu. *Pubmed* datu baseak termino hau 2020ko martxoaren 11an bere hiztegiko tesaurioan sartu zuen “*postintensive care syndrome [Supplementary Concept]*” gisa.

Salbuespen gisa, *Dialnet* datu-baseak azken 5 urteen denbora tarte jartzeko aukera eskaintzen ez duenez, iragazki gisa 2010-2019 erabili den arren 2015-2020 bitarteko artikulak soilik barne hartu dira.

Informazio gehiago lortzeko, jarraian agertzen diren web orri desberdinak kontsultatu dira:

- *Proyecto HU-CI - Humanizando los cuidados intensivos*: zainketa intentsiboak humanizatzea, hedatzea, gaixoen, familien eta profesionalen foro eta topagune izatea eta biztanleria orokorrera hurbiltzea helburu duen disziplina anitzeko ikerketa proiektu nazional eta internazionala. Proiektu honen ikerketa lerroetako bat ZIU-OSaren prebentzio eta maneia da.
- *American Association of Critical-Care Nurses (AACN)*: Ameriketako zainketa intentsiboetako erizainen elkarte.

- *Sociedad Española de Enfermería Intensiva y Unidades Coronarias (SEEIUC)*: Zainketa Intentsiboetako Erizaintza eta Unitate Koronarioen Espainiako Elkarteak.
- *Agency for Healthcare Research and Quality (AHRQ)*: Ameriketako osasun sistemaren segurtasuna eta kalitatea hobetzeaz arduratzen den agentzia federal nagusia.

Bestalde, UPV/EHUko liburutegian ere ZIU-OSaren edo honen prebentzioarekin erlazioa duten liburuen bilaketa egin da, “ZIU osteko sindromea” hitza erabiliz.

Azkenik, lanerako baliagarriak diren artikulua aukeratzeko izenburu nahiz laburpenak irakurtzeaz gain barneratze eta kanporatze irizpideak ezarri dira, aukeraketa zehazteko asmoz (ikus 2. taula).

2. taula. Bilaketa bibliografikoan erabilitako barneratze-kanporatze irizpideak.

Barneratze irizpideak	Kanporatze irizpideak
ZIU-OSaren prebentzioan oinarritzen diren dokumentuak	Errepikatutako dokumentuak
Erizainaren rol-ari aipamena egiten dien dokumentuak	ZIU-OSaren tratamenduan soilik oinarritzen diren dokumentuak
	Haurretan zentratutako dokumentuak
	Aurrez diagnostikatutako patologia bat duten pazienteetan oinarritutako dokumentuak

3.2. Bilaketa bibliografikoaren emaitzak

3.2.1. Lehen mailako bilaketa bibliografikoa

Bilaketa estrategian ezarritako baldintzak kontuan izanik, datu-baseetan egindako bilaketetan lortutako emaitzak 1. eranskinean azaltzen dira. Bilaketa bibliografiko honen bidez lana burutzeko 26 artikulua aukeratu dira. *Pubmed*-en 19, *Cochrane*-n bat, *BVS*-n bat, *Dialnet*-en bat, *Scopus*-en bi, *Trip Database*-n bat eta *Cuiden*-en bat.

Bestalde, UPV/EHUko liburutegitik liburu bat hautatu da, “*Post-Intensive Care Syndrome*”.

Datu-baseetan artikuluak bilatzeaz gain, *Proyecto HU-CI*, AACN, SEEIUC eta AHRQ web orriak ere kontsultatu dira, honela, bertako bost dokumentu hautatu direlarik (ikus 2. eranskina). Aipatu, “*Manual de buenas prácticas de Humanización*” lana garatzeko dokumentua bera erabili ez den arren, bigarren mailako bilaketa bibliografikoa burutzeko erabili dela.

3.2.2. Bigarren mailako bilaketa bibliografikoa


Lehenengo mailako bilaketa bibliografikoan lortutako zenbait artikuluren bidez lanerako erabilgarriak izan diren beste 6 artikulua eskuratu dira (ikus 3. eranskina). Aipatu, dokumentuetako bat 2012. urtekoa bada ere, onartua izan dela, “ABCDE sortaren” implementazioan erizainen rolari aipamen berezia egiten dion artikulua bakarretako bat baita.

3.2.3. Aukeratutako dokumentuen ezaugarriak

Azkenean lana burutzeko 37 dokumentu erabili dira: 6 errebisio sistematiko eta metaanlisi, 17 berrikuspen bibliografiko, praktika klinikorako gida bat, 10 ikerketa, adituen iritzi bat, editorial bat eta erraztailearen gida bat.

Lortutako artikuluak ebidentzia mailaren arabera sailkatu dira, Alper eta Haynes-ek proposatutako ebidentziaren piramidea erabiliz (17). Piramidearen gailurrean ebidentzia altueneko artikuluak aurkitzen dira eta piramidearen oinarrira zenbat eta gehiago hurbildu, artikuluen ebidentzia maila geroz eta baxuagoa da (ikus 1. irudia).

4. eranskinean laburtzen dira dokumentu bakoitzaren egileak, argitaratutako urtea, ikerketa mota, ebidentzia zientifikoaren maila eta artikuluen gaia.



1. irudia. Alper eta Haynesen piramidea. Iturria: Alper BS, Haynes RB. EBHC pyramid 5.0 for accessing preappraised evidence and guidance. Evid Based Med [Internet] 2016 atzitze data: 2019ko abenduak 3]; 21(4): 123-125. Eskuragarri: <https://ebm.bmj.com/content/ebmed/21/4/123.full.pdf>.

4. EMAITZAK

2018an Zainketa Kritikoen Medikuntzako Ameriketako Unibertsitateak eta Zainketa Kritikoetako Medikuntzako Elkarteak, ZIUko paziente helduetan Mina, Asaldura/Sedazioa, Eldarnioa, Mugikortasuna (errehabilitazioa/mobilizazioa) eta Lo Etena Prebenitzeko eta Kudeatzeko Praktika Klinikorako Gida (MAEML Gida) eguneratu zuten, ingelesez *Clinical Practice Guidelines for the Prevention and Management of Pain, Agitation/Sedation, Delirium, Immobility, and Sleep Disruption in Adult Patients in the ICU (PADIS Guidelines)* (8,18).

Eguneroko praktika klinikoan gida honek azaltzen dituen jarraibideak ezartzen laguntzeko eta nazioarteko jarraibideak tokiko hizkuntzetara egokitzeko (19), Analgesia, Lasaigarri minimoak eta Giza Zainketa maximoa erabiliz erosotasun goiztiarra lortzea kontzeptua, ingelesez *Early Comfort using Analgesia, minimal Sedatives and maximal Human care concept (eCASH)* (2016) (20), nahiz ABCDEF sorta proposatu dira (14,15).

Azken hau, ehunka ZIUtan martxan jarri den osagai anitzeko eta disziplina arteko estrategia bat da (14,15) eta epe luzeko urritasun kognitiboak, eldarnioa eta beherakada fisikoa prebenitzea du helburu (7,8,21). Erizainen eginkizun

garrantzitsuenetako bat ZIU-OSa prebenitzeko neurriak etengabe ezartzea da (2), beraien baitira gaixoaren arreta zuzenean denbora gehien ematen dutenak (2,22).

4.1. ABCDEF sorta eta erizainaren esku-hartzea

A. Mina ebaluatu, prebenitu eta kudeatu

ZIUko gaixoen kudeaketan lehen urratsa mina detektatu eta kontrolatzea da (18-20), arindu gabeko minak, epe luzera ondorio kaltegarriak izan baititzake, besteak beste, min kronikoa, TOE (19,23) eta eldarnioa (6).

Minaren maneia konplexua da, bere eboluzio-denbora aldakorra delako, jatorri desberdinak dituelako eta, azkenik, pazientearen pertzepzio subjektiboak eta garatu dezakeen tolerantzia oso aldakorra izan daitekeelako (18). ZIUan dauden paziente gehienek muga kognitibo eta fisikoak direla eta, ezin dute mina dutela jakinarazi (6) eta hau ez da interpretatu behar pazienteak mina sentitzeko duen ezintasuntzat eta, are gutxiago, mina behar bezala ez ebaluatzeko edo tratatzeko justifikaziotzat (18).

Ezinbestekoa da ZIUko egonaldian zehar analgesia beharren ebaluazio erregularrak egitea (20,24) eta horretarako erizainak hainbat eskala erabil ditzake. Komunikatu daitezkeen pazienteetan, ahoz edo bisualki adieraz daitezkeen 0-10eko Eskala Numerikoa, ingelesez *Numeric Rating Scale* (NRS), erabiltzea gomendatzen da (14,18,20,22), non puntuazioa zenbat eta altuagoa izan, orduan eta intentsitate handiagoa izango duen minak (25).

Komunikazioa eragotzita dagoenean baina jokaerak behatzea posible den kasuetan, minaren ebaluazioa pazientearen portaera ereduak ebaluatuz minaren neurketa kuantitatiboa egitea ahalbidetzen duten tresnen bidez egitea gomendatzen da (6,13,18,22,20), hala nola, intubatutako pazienteetan Minarekin Lotutako Portaera-Eskala, ingelesez *Behavioral Pain Scale* (BPS), eta intubatutako nahiz intubatu gabekoetan Gaixo Kritikoetan Mina Behatzeko Tresna (13,18,22), ingelesez *Critical-Care Pain Observation Tool* (CPOT).

- BPS eskala hiru portaera domeinuren baturan oinarritzen da: aurpegiko adierazpena, goiko gorputz-adarren mugimendua eta arnagailuaren onarpena. Domeinu bakoitza 1etik (erantzunik gabe) 4ra (erantzun osoa) puntuatzen da. Puntuazioa 3 (minik gabe) eta 12 (min maximoa) bitartekoa da (26).

- CPOT eskalak 4 portaera domeinu ebaluatzen ditu: aurpegiko adierazpena, gorputz-mugimenduak, giharren tentsioa eta arnagailuaren onarpena intubatutako pazienteetan, edo bokalizazioa hodi endotrakealik gabeko pazienteetan. Domeinu bakoitza 0 eta 2 bitartean puntuatzen da eta azken puntuazioa 0 (minik ez) eta 8 (min maximoa) bitartekoa da (26).

Estimuluei erantzuten ez dien eta Richmond-en Agitazio eta Sedazio Eskalan, ingelesez *Richmond Agitation and Sedation Scale* (RASS), ≤ -4 puntuazioa duten pazienteetan, aldiz, hitzezko adierazpenaren nahiz jokabide eskalen bidez ezin da mina ebaluatu eta ez dago horretarako erabilgarria izan daitekeen metodo alternatiborik eskuragarri (18).

Tratamendu farmakologikoari dagokionez, opioideek analgesiaren maneian funtsezkoak izaten jarraitzen dute eta paziente askoren beharrak dosi baxuko opioideekin asebate daitezke (20). Hala ere, erizainek terapia analgesikoa administratzerakoan (27) hauek sor ditzaketen albo-ondorioak kontutan izan behar dituzte, hala nola, eldarnioa (18,23), arnas depresioa (18,20,23), tolerantzia/abstinentzia, idorreria (20) eta immunosupresioak (18,20,23), besteak beste, ZIUko egonaldia luzatu eta alta osteko emaitza funtzionalak okertzeko aukerak areagotzen baitituzte (18). Hauen ordeztu, analgesiko ez-opioideak erabiltzea gomendatzen da, hala nola, parasetamola, nefopama, ketamina, lidokaina, min neuropatikorako sendagaiak eta antiinflamatorio ez-esteroideoak (18,20,23,24).

Bestalde, esku-hartze ez-farmakologikoek, esaterako, ingurumen atsegin bat bultzatzea (24), musikoterapia (18,20,23), familiaren presentzia erraztea (18,24), masajeak ematea (18,23) eta erlaxazio teknikak burutzeak (18,20) opioideen beharra gutxitu eta analgesia hobetu dezakete (18,20,23,24).

B. Esnatze espontaneoko probak (EEP) eta arnaste espontaneoko probak (AEP)

Paziente kritikoek antsietatea eta estresa murrizteko nahiz prozedura inbaditzaileak eta aireztapen mekanikoa errazteko, sedazioa behar izan dezakete (18,27). Erizainak pazientearen sedazio mailaren ebaluazio erregularrak egiteko RASS eskala erabil dezake (13,18,20,21,24,28). 10 puntutako eskala honetan, pazientearen antsietate edo agitazioa ondorengo 4 mailatan sailkatzen da: alerta egoera (-1 eta +1 artean), sedazio moderatua (-2 eta -3 artean), sedazio sakona (-4 eta -5 artean) eta agitazioa (+2 eta +4 artean), 0 puntuazioak pazientearen erne eta lasai dagoela adierazten duelarik (21).

Neurrizko sedazioak edo sedazio sakonak hainbat egoeratan garrantzitsua izaten jarraitzen du, hala nola, arnagailuarekin sinkronia eza dagoen arnas gutxiegitasun larriaren maneian, blokeante neuromuskularrak jasotzen dituzten pazienteetan, estatus epileptikoetan, immobilizazio zorrotza eskatzen duten baldintza kirurgikoetan edo hipertentsio intrakraneala dagoen zenbait garuneko lesio larrien kasuetan (20). ZIUko gaixoen gehiengo zabalarentzat, ordea, azaleko sedazio maila lortu eta mantentzea nahikoa da, gehiegizko sedazioak sor ditzakeen balizko kalteak ekidinez (20,29). Sedazio maila hau, PADIS gidak $RASS \geq -2$ eta begiak > 10 segunduz irekita mantetzea bezala definitzen du (18) eta eCASHek, berriz, $RASS -1/0$ bezala, non pazienteak begi kontaktua mantentzeko, zaintzaile nahiz senitartekoekin elkarreragiteko, terapia fisiko edota okupazionalen parte hartzeko baina aldi berean, etenik gabe lo egiteko gai den (20).

Sedazio mota edo maila egokia bideratzeko, erizainek protokolo bidez zuzendutako sedazioa (18,20,24,27,29) edo eguneroko esnatze protokoloaren ohiko erabilera (6,8,18,20,24,27,29) sustatu dezakete. Bi metodoak eraginkorrak direla frogatu da, baina ez bata bestea baino egokiagoa denik (18,20,22,24,27-29).

Erizainek bideratutako sedazio protokoloak, aurrez garatutako eta erizainak pazientearen oheburuan inplementatzen dituen protokoloak dira. Bertan, lasaigarrien aukeraketa zehazten da eta sendagai hauek preskribatutako sedazio helburuak lortzeko nola doitu azaltzen da (18,20). Egun, sedazio protokolo eta algoritmo askok, minaren eta asalduraren ebaluazioa eta kudeaketa algoritmo bakar baten barruan sartzen dituzte (27,28) eta ebaluazioaren maiztasuna nahiz analgesia eta sedazio dosien doikuntza protokoloak erregulatzen ditu (28).

Sedazioa egunero etetea edo EEPa, zain barneko sendagai lasaigarri edo analgesikoen epe motzeko etete edo gelditzea da (29). Pazientea esnatu egiten da, ekintza objektibo bidez definitzen den kitzikapen edota alerta-egoera lortuz, hala nola, hitzeko estimulazioaren aurrean begiak irekitzea, agindu sinpleei erantzutea edota $RASS$ eskalan -1 eta $+1$ bitarteko puntuazioa izatea (18). Proba hau erizainak burutzen du eta lehenik eta behin sedazioa etetea egokia den ebaluatu beharko da. Horretarako, infusio lasaigarrien erabileraren zergatia aztertuko da, pazienteak krisi aktiboetarako, garezur barneko presioa kontrolatzeko edo alkohola uzteko lasaigarriak hartzen ari bada ezin baitira proba hauek burutu. Honez gain, proba hauek burutzea oztopatu dezakeen arriskurik ez dagoela ziurtatu behar da, hala nola, pazienteak blokeante neuromuskularrak jasotzen aritea, $RASS > 2$ izatea, azken 24 ordutan miokardioko

iskemia zeinuak agertu izana, garezur barneko presioa > 20 mmHg izatea edo gorputzez kanpoko mintzaren oxigenazioa jasotzen aritzea. Aurreko irizpideak bete ezean, ezingo da proba hau burutu eta 24 ordotara berriro ebaluatuko da (27).

Segurtasun proba gainditu eta sedazioa etetean, ondorengo zeinu edo sintomaren bat agertzen bada, sedazioa aurretiazko dosiaren erdian berrabiarazi eta 24 ordotara segurtasun proba burutuko da berriro: RASS > 2 (27), pultsioximetriaren irakurketa < % 88 edo arnas maiztasuna > 35 arnasketa/minutu 5 minutu edo gehiagoz, arritmia berri baten agerpena (21,27), garezur barneko presioa > 20 mmHg edo arnas estutasunaren adierazle diren 2 sintoma edo gehiago, esaterako, disnea, muskulu osagarrien erabilera edo diaforesia (27).

Sedazioa etetean aurrez aipaturiko zeinu edo sintomarik agertzen ez bada eta pazienteak hitzeko estimuluaren aurrean begiak irekitzeko gai bada, EEPa onartutzat emango da eta arnas terapeuta AEPekin hasiko da. Bertan, pazienteak bere kabuz arnasa hartzeko gai den edo ez ebaluatuko da eta erizaina sendagaien maneiuaz ardurako da (27) (ikus 5. eranskina).

Sedazioaren maneiuaz aztertzen duten hainbat ikerteta daude. Adibidez, 2019an Korean egindako konparaketa ikerketa batean sedazioaren ebaluazio maiztasuna handitu eta erizainek analgesia eta lasaigarrien administrazioa medikuek bideratutako protokoloaren arabera egokitzean, pazienteen ehuneko handiago batek azaleko sedazio helburua lortzeaz gain, asaldura egoeraren ondoriozko nahigabeko lasaigarrien gehiegizko erabilera eta sedazio moderatu eta sakonaren mailak nabarmen gutxitu ziren (21).

Espanian 2019an egindako behaketa-ikerketa baten arabera, ZIUen % 64ak ez du sedazio protokolorik (Europa mailan % 50ak) eta protokolo bat erabiltzen duten unitateen artean, aldiz, % 15ak diziplina anitzeko algoritmoak erabiltzen ditu eta % 11,6ak (Europako laurden bat) eguneroko sedazio etete probak. Bertan, erizainak zuzendutako protokoloak, medikuaren preskripziopean egindako EEPak baino dinamikoagoak direla ondorioztatu da, askotan, analgesiaren administrazioa ere erregulatzen baitute, EEPekin beti gertatzen ez den bezala (28).

PADIS gidaren arabera bi praktikak seguruak dira eta ez dago desberdintasunik azaleko sedazioa lortu eta mantentzerakoan (18). Hala ere, EEPak erizaintzako lan karga handiago batekin lotzen dira eta, adierazpen medikurik egon ezean, egunean zehar behar baino sedazio sakonagoaren erabilera ez dutela justifikatzen adierazten

da (18). Lan karga arazo bera ondorioztatzen da López-López et al.-en (22) eta Warlan et al.-en (24) azterlanetan.

eCASH kontzeptuaren azalpenean, aldiz, sedazio protokoloak erabiltzea bultzatzen da, pazientearen sedazio maila eskala bidez ebaluatuz eta etengabe sendagaiak aurrez zehaztutako helbururaino doitu, EEPen eginkizuna eta beharra gutxituko luketela aldarrikatuz (20).

C. Analgesia eta sedazioa aukeratzea


Sendagai lasaigarria aukeratzekoan, indikazioak, helburuak, farmakologia klinikoa eta eskurapen kostuak erabakigarri garrantzitsuak dira (18). Aireztapen mekanikoa behar duten paziente helduetan sendagai ez-benzodiazepinikoak (propofol edo dexmedetomidina) erabiltzea gomendatzen da, benzodiazepinekin (midazolam edo lorazepam) alderatuz (18,20,24,29), efektu laburrekoak izateaz gain doitzeko errazagoak baitira (20) eta, epe laburrera begira, emaitza hobekak baitituzte, hala nola, ZIUko egonaldia, aireztapen mekanikoaren iraupena (18,20) eta eldarnioaren prebentzioan (18).

Benzodiazepinak, aldiz, argibide zehatzetarako gordetzea gomendatzen da, esaterako, sedazioa behar izan den prozedura baten ondorengo amnesia, konbulsioak, alkohol abstinentziako zenbait kasutan, sendaezina den asaldura edo zainketa aringarri edo garuneko patologia larrietarako (20). Izan ere hauen erabilera, besteak beste, arnas depresioa (27,29), gorputza hain zorrotza ez den ingurune batera egokitzea (27), ezegonkortasun hemodinamikoa (29), aireztapen mekanikoa eta ZIUko egonaldia luzatzea (6,20,29) nahiz eldarnioa (6,21,27,29), depresioa eta TOE (6,20) garatzeko probabilitate handiago batekin erlazionatzen da.

Analgesiari dagokionez, aurrez aipatutako opioideen erabilerarekin lotutako segurtasun kezka orokorrak kontuan hartuta, paziente kritikotik minaren kontrol egokia bermatuz, opioideen administrazioa gutxitzeko helburuarekin aukera desberdinak ebaluatu dira, hala nola, analgesiko ez-opioideen erabilera (18,20,23,24). Azken hauek, analgesiko opioideekin nahiz mina arintzen laguntzen duten esku-hartze ez-farmakologikoekin konbinatu daitezke (modalitate anitzeko analgesia) (18).

2. irudian, eCASH kontzeptuaren implementazio mapa azaltzen da, analgesia eta minaren kudeaketa eraginkor koordinatuan eta sedazio minimo eta arinean oinarritzen dena. Lerro etenek aldi berean kontuan hartu beharreko faktoreak edota esku-hartzeak identifikatzen dituzte (20).

Aipatu, sedazio eta analgesiaren kudeaketa egoki eta koordinatua erabakigarria dela narriadura kognitiboa prebenitzeko (nahasmendua edo eldarnioa) (6) eta, bide batez, mobilizazioak erraztea ahalbidetzen duela, pazientearen parte-hartzean eraginez (6,14,18,22,24).



2. irudia. eCASH diagrama (20. erreferentzia bibliografikotik moldatua).

D. Eldarnioa ebaluatu, prebenitu eta kudeatu

Eldarnioak ZIUko paziente helduetan % 30-60ko inzidentzia du, horietatik % 80a mekanikoki aireztatutako pazienteak izanik (30). Eldarnioaren esperientzia kezkarria da pazienteentzat, eta ongizate fisikora itzultzean, etengabeko estutasun psikologikoa izaten dute (31). ZIUn dauden paziente helduetan, eldarnioa hilkortasunarekin erlazionatzen denez eta ZIUko alta ostean urritasun kognitiboak pairatzeko arrisku faktore garrantzitsua denez (8,18,29), bizirik dirautenen herenari eraginez (2,13,19), PADIS gidaren ildo nagusietako bat eldarnioaren prebentzio eta maneia da (8,18).

2018an Espainian egindako ikerketa baten arabera, eldarnioaren prebentzio eta kudeaketarako protokoloen gabezia (ZIUn % 70 ingurukoa), Europako batz bestekoaren antzekoa da. Protokolo falta berdintsua izan arren, Espainian honek ez du eldarnioaren presentzia ebaluatzeko balidatutako eskalen erabilera sustatzen eta Europarekin alderatuz gutxi erabiltzen dira (ZIUn % 26 eta % 90an hurrenez hurren) (28).

Nahasmendu patroia sinpleak hautemateko zailtasunak eldarnioaren azpi-antzematea bultzatzen du (6). Miaketa kognitiboa egiteko, lehenik eta behin, pazientearen sedazio maila ebaluatuko da RASS eskala erabiliz eta esna daitezkeen pazienteetan, RASS \geq -3, eldarnioaren ebaluazio gehigarria egitea gomendatzen da (18,31), Raurell-Torredà et al.-en arabera, aldiz, RASS +1 eta +4 bitartekoa denean (28). Horretarako, gutxienez lanaldian behin edo pazienteak egoera mentalean aldaketaren bat duen bakoitzean, erizainak eldarnioaren ebaluazio eskalaren emaitzak erregistratuko ditu (21,24,27,31), Nahastea Ebaluatzeko Tresna – ZIU (6,14,18,20,21,24,27), ingelesez *The Confusion Assessment Method- ICU* (CAM-ICU), nahiz Zainketa Intentsiboetan Eldarnioa Egiaztatze Zerranda, ingelesez *The Intensive Care Delirium Screening Checklist* (ICDSC), eskalak erabiliz (6,18,27).

- CAM-ICU eskalaren arabera eldarnioa agertuzat jotzen da gaixo batek egoera mentalean aldaketak edo fluktuazioak, arreta falta, kontzientzia-maila aldatua edo pentsamendu desantolatua dituenean (27).
- ICDSC eskala, berriz, 1 (presente) edo 0 (ez dago) gisa idazten diren zortzi item-etan banatzen da. Amaierako puntuazioa 4 edo gehiagokoa bada, eldarnioaren hautematea positibotzat jotzen da (27).

Eldarnioari aurre egiteko erizainek zuzendutako osagai anitzeko esku-hartze ez-farmakologikoen erabilera gomendatzen da (18,27,30,31) gaixo larrien artean eldarnioa izateko arriskua gutxitzen dutela frogatu baita (18,27,31), hala nola:

- **Ebaluazio eta orientazio kognitiboa:** balioztatutako CAM-ICU ebaluazio tresna eta orientazio-teknikak erabiliz oinarri-lerro bat ezarri behar da eta paziente guztiak denbora/toki/jende/gertakizun eta ospitalizazio arrazoiertara birbideratuko dira, tarte erregularretan (18,21,24,31). Estimulazio kognitiboak (18,19,21) eta erlojuen erabilerak ere eldarnioa gutxitzen dutela frogatu da (18,21).
- **Funtzio sentsorialak:** ikusmenerako eta entzumenerako funtzio sentsorialak optimizatu behar dira, betaurrekoak eta audifonoak eskuragarri daudela eta pazienteak esna dagoenean behar bezala erabiltzen direla ziurtatuz (18,24,30,31). Familiei elementu horiek eskura izatea gogoraraziko zaie eta erizainak erabilera egokia bermatuko du. Bestalde, zentzumen-galera konpentsatzeko eta lengoia oztupoak gainditzeko hitzezko, idatzizko nahiz irudi bidezko komunikazio-teknika egokiak erabiliko dira (31).

- **Ingurumeneko esku-hartzeak:** ingurumen faktoreak, hala nola, gelako iluntasuna, soinu etengabea eta ohiko etenaldiak, eldarnioaren garapenerako faktore prezipitatuak dira (6,19). Erizainak, ingurune fisiko lasai eta eroso bat eskaini eta loa bermatu dezake, paziente bakoitzari erloju, egutegi eta ordutegia eskura jarritz (24,31), argi eta soinuak murriztuz (18,21,24,30,31), loa oztopatu dezaketen erizaintzako esku-hartzeen ordutegiak (21,31) eta gaueko argia egokituz (21,30,31), begietako estalkiak edo belarrietako tapoiak eskainiz (21,30) eta gogoko dituzten etxeko gauzak ekartzea baimenduz (31). Gaixoaren segurtasuna murrizketa fisikorik gabe bermatzea posible denean, murrizketa horiek ez zaizkie jarriko (21,24,31). Azkenik, familia bisitak antolatu eta senitartekoak, posible denean, maiz etortzera nahiz ahalik eta denbora gehien geratzera animatuko dira, batez ere sedazioa kentzeko asmoa dagoenean (21,31).
- **Esku-hartze terapeutiko goiztiarrak:** erizainak, mobilizazio/errehabilitazio goiztiarra sustatu eta mugikortasun ordutegia planifikatuko du mugiezintasuna gutxituz (19,21,24,30,31), elikadura egokia hornitu, minaren ebaluazio eta kudeaketa eraginkortasunez eta goiz esku-hartuz burutuko du, antikolinergiko eta opioideen erabilera murriztu, infekzioak garaiz antzeman eta kudeatu eta beharrezkoak ez diren kateterrak kenduko ditu, besteak beste (31).

2019an Txinan egindako errebisio sistematiko eta metaanlisi batean, non eldarnioaren prebentziorako hainbat esku-hartze ez-farmakologikok duten eraginkortasuna aztertu zen, familiaren parte-hartzea eta osagai anitzeko esku-hartzeak izan ziren eldarnioaren intzidentzia murriztean eraginkortasun gehien azaldu zutenak. Eldarnioaren iraupena eta ZIUko egonaldia murriztean, aldiz, osagai anitzeko esku-hartzeek azaldu zuten eraginkortasun gehien (30).

2019an Korean egindako beste ikerketa batean, aldiz, eldarnioaren prebentziorako iradokitako esku-hartze ez-farmakologiko horiek soilik egunerokotasunean aplikatuz, eldarnioaren prebalentzian beherakada nabarmenik ez zela gertatzen ikusi zen, lasaigarri mota eta erabilitako analgesiko eta lasaigarri kantitateak eldarnioan eragina duela ondorioztatzen delarik (21).

Interbentzio farmakologikoen artean eldarnioa prebenitzeko, antikolinergiko, opioide eta sendagai lasaigarrien erabilera minimizatzea gomendatzen da (6,21,29). Orain arte, haloperidolaren erabilerak eldarnioaren sintomen prebentzioan eta melatoninak

esna-lo zikloen erregulazioan eraginkortasuna erakutsi badute ere (6), azken praktika klinikorako gidetan ez da hauen erabilera gomendatzen (18).

Eldarnioaren arrisku faktore anitzak kontuan hartuta, ez da harrizkoa arrisku faktore bat baino gehiago zuzentzeko diseinatutako esku hartzeak, pazienteen emaitza hobetzeko gaitasunean eraginkortasun handiagoa izatea (18,30), hala nola, ABCDEF sortak (18,20,21,30,32) edo eCASH kontzeptuak (20,30).

E. Mobilizazio eta ariketa goiztiarra

Ezgonkortasun hemodinamikoa, aldatutako lo ereduak, osagarri baskularrak eta sedazioaren erabilerak sortutako immobilizazioa ZIUn eskuratutako ahultasuna pairatzeko arrisku faktore nagusia denez, immobilizazioaren iraupena murriztea prebentzio ekintza gisa iradoki da (33,34). Errehabilitazio goiztiarraren eraginkortasuna aztertzeko hainbat ikerketa burutu dira. Esaterako, 2018an Fuke et al.-ek burututako errebisio sistematikoan, definizio garbirik azaltzen ez badute ere, barne hartu dituzten artikuluetan ZIUko onarpeneko lehen hiru egunetan hasitako ariketa fisikoari deitzen diote errehabilitazio goiztiarra. Honez gain, errehabilitazio goiztiarrak ZIU-OSaren prebentzioan efektu mugatua duela ondorioztatu da. Errehabilitazio ez goiztiar nahiz arreta estandarrekin alderatuz, epe laburreko funtzio fisikoa hobetu eta ZIUn eskuratutako ahultasunaren intzidentzia gutxitzen duela frogatu bada ere, funtzio kognitiboan, osasun mentalarekin lotutako emaitzetan edo hilkortasunean ez du eragin nabarmenik izan (35).

Doiron et al.-ek barne hartutako ikerketetan, berriz, errehabilitazioa hasteko denbora ikerketen artean aldakorra da, hala nola, onarpenetik 48 orduko epean, lehen 24 orduetan edota intubazioaren ondorengo 1-2 egunetan. Bestalde, hobekuntzak aurkitu ziren egoera funtzional independentera itzultzerakoan, giharren indarra handitzean, funtzio fisikoaren hobetzean eta ZIUko nahiz ospitaleko egonaldian eldarnioa gutxitzean. Dena den, esku-hartze mota, maiztasun, iraupen, intentsitate eta progresioan dagoen aldaera zabala dela eta, ez dago kalitate handiko ebidentziarik errehabilitazio goiztiar honen eraginkortasuna argitzeko (33).

PADIS gidaren arabera, errehabilitazio goiztiarrak ZIUko alta osteko giharren indarra hobetu dezake, eldarnioa kudeatzeko baliagarria izan daiteke eta aireztapen mekanikoaren iraupena murrizten du, bizi kalitatean duen eragina estatistikoki esanguratsua izan gabe. Hala ere, barne hartutako ikerketetan esku-hartze mota eta hau hasteko momentua aldakorrak dira, ezin delarik gomendio zehatzik eman (18).

Azkenik, Geense et al.-ek burututako errebisio sistematikoan barne hartutako berrikuspen gehienetan, errehabilitazio fisikoko programen bidez neurtutako emaitza gehienak osasun fisikoan izan badira ere, ebidentzia dago ariketa programek ZIU ostean bizirik dirautenen osasun mentaleko emaitzetan eragin positiboa dutela. Hala ere, esku-hartzeen, populazioen eta jakinarazitako emaitzen heterogeneotasunak esku-hartzeen eraginkortasuna ebaluatzeko eta tratamenduaren efektuen estimazio zehatzak emateko gaitasunean muga bat suposatzen du (36).


ZIUko mobilizazio-ahalegin askok fisioterapeutak eta terapeuta okupazionalak inplikatu dituzte (28,33,34) baina erizainak pazientearen oheburuan etengabeko presentzia dutenez (22), hainbat unetan gaixoaren mugikortasuna erraztu dezake, esaterako, otorduetan pazientea aulkira jaikiz, bizi-konstanteak neurtzean pazienteari ohearen albo batean esertzeko eskatuz, senitartekoren bat etortzean ibiltzera animatuz, garbiketa egitean paziente bera ohean mugitzera bultzatuz... (34) eta honela gaixoaren gaitasun funtzionala hobetzen lagunduz (2,24).

Diziplinarteko arreta-taldearen ardura gaixoa mugikortasunerako prest dagoen ebaluatzea izango da, erizainaren betebeharrak pazientearen egonkortasun fisiologikoa ebaluatzea delarik. Horretarako, Ameriketako Estatu Batuetako Osasun Ikerketarako eta Kalitateko Agentziaren arabera, gaixoaren egonkortasun neurologiko, kardiobaskular eta arnas egonkortasuna adierazten duten ondorengo parametroak ebaluatuko dira (27):

- **Neurologia:** pazienteak hitzezko estimulazioari erantzuten dio (RASS > -3).
- **Arnasketa:** *Fraction of inspired oxygen* (FiO_2) < 0,6 eta *Positive End-Expiratory Pressure* (PEEP) < 10 cm H₂O.
- **Zirkulazioa / kateter zentrala / kontraindikazioak:** azken 2 orduetan infusio basopresoreen dosia ez igo izana, miokardioko iskemia akutuaren zeinurik ez izatea, antiaritmiko baten administrazioa behar duen arritmia ez izatea, mugikortasuna mugatzen duten terapiarik ez jasotzen aritzea, hala nola, mintzez kanpoko oxigenazioa, abdomen irekia, monitorizazio intrakraneala edo drainadura eta arteria femoraleko kateterra eta azkenik, mobilizazioak kontraindikaturak dauden lesiorik ez izatea, esaterako, haustura ezegonkorra.

Mobilizazio goiztiarra hasi nahiz eteteko kriterioak osotasunean kontsultatzeko ikus 6. eranskina.

Behin pazientea mobilizazioak burutzeko prest dagoela ziurtatzean, erizainak mugikortasun goiztiarrerako protokoloari ekingo dio (27), 3. irudian Ameriketako Estatu Batuetako Osasun Ikerketarako eta Kalitateko Agentziak proposatzen duen protokoloa ikusi daiteke (37). Mobilizazioak gutxienez egunean behin burutzea gomendatzen da, pazienteak jasan dezaken jarduera fisiko maila altuenari ekinez. Baldintzak betetzen ez dituztenak, aldiz, egunero birbaloratzen dira (27)



3. irudia. Erizainak bideratutako mobilizazio protokoloa (37. erreferentzia bibliografikotik moldatua).

2018an Espainian ZIU-OS prebenitzeko esku-hartzeen inplementazioa ebaluatzeko egindako ikerketa batean, ZIUen % 86ak mobilizazio protokolorik ez zutela ikusi zen eta protokolo bat zuten hiru ZIUtan (% 3,5) ez zen mobilizazio goiztiarra barne hartzen, hau da, lehen bost egunetan hasitako errehabilitazioa (28).

Bestalde, 2017an Europar Batasuneko hainbat erizainek egindako literatur berrikuspenean, errehabilitazio goiztiarraren inplementazioak eskasa izaten jarraitzen duela ikusi zen. Frantziako, Alemaniako, Erresuma Batuko eta Ameriketako Estatu Bautuetako 951 ZIUtan mobilizazio goiztiarra % 40, % 59, % 52 eta % 45ean soilik erabiltzen da, hurrenez hurren. Errehabilitazio goiztiarra ZIUko bigarren eta bosgarren egunen bitartean egindako ariketa aktibo gisa definitzen da, non aireztapen mekanikoa behar duen paziente batek bere muskuluen indarra eta kontrola erabiliz jardueran lagun dezakeen (19).

F. Familiaren inklusioa, konpromisoa eta ahalduntzea

Familia eta zaintzaileen inplikazioa ere funtsezkoa da gaixo kritikoaren berreskuratze prozesuan (2,6,19,23,24). Diagnostikoaren, beharrezko prozeduren eta arreta planen komunikazio irekiak (6), familiako kideen eta osasun profesionalen arteko lotura indartu eta pazientearen zaintzan familiaren parte-hartzea sustatzen du (2,24). Horretarako, familiak barne hartzen dituzten zainketa programak garatu behar dira (23), besteak beste, ondorengo esku-hartzeak kontutan izanik (38):

- Gaixoaren erizain arduraduna lehen harrera bilera bat egiten saiatuko da, ahalik eta azkarren, informazioa eskainiz eta egoeraren kontzientzia sustatuz.
- Familiari mezu argia emango zaio, taldeak prozesuaren zati garrantzitsutzat eta gaixoaren errekupeazioari laguntzen dion elementutzat jotzen dituela azalduz eta nahi izanez gero parte hartu dezaketen aspektuen inguruko informazioa helaraziz eta parte hartzera animatuz.
- Familiaren lehentasunak identifikatu eta erregistratuko dira, pazientearekin egon nahi duten denbora, zainketan parte hartzeko nahia eta haien izenean edo gaixoaren izenean egin nahi duten beste edozein ekarpen.
- Sentimenduak adierazteko eta egoerari buruzko zalantzak, beharrak, beldurrak edo usteak azaltzea ahalbidetzen duen jarrera enpatikoa azalduko da.
- Unitatean entzun ditzaketen alarma eta soinuak berri emango zaie, zarata ezezagunek sor dezaketen estresa murrizteko.

- Gaixo kritikoaren ezaugarri garrantzitsuenetako batzuei buruzko informazioa modu generikoan azalduko zaie, prozedurarik ohikoenak azalduz.
- Eldarnioa agertzeko aukeraren eta pazientearen birbideratzen saiatzeko metodoen berri emango da.
- Aire bidea konprometituta duten pazienteen kasuan (intubazio endotrakeala, trakeotomia...), komunikazio metodoen berri emango zaie, hala nola, arbelak, piktogramak...

4.2. ZIUko egunerokoak

ZIUko egunerokoaren erabilerak TOE, depresioa edota antsietate-sintomak gutxitu ditzake gaixo nahiz senideetan (2,6,23,36,39), ZIU-OSa prebenituz (2), komunikazioa hobetuz eta errekupeazio psikosoziala sustatuz (7).

Eguneroko hauek, hiru egun baino gehiagoko egonaldia edota aireztapen mekaniko edo eldarnioa 48 ordu baino gehiagoz izan duten pazienteetan erabiltzea gomendatzen da, gaixotasunaren ezaugarri hauek ZIU osteko arazo psikologikoekin erlazionatuta baitaude (40).

ZIUko erizain nahiz gaixoen senideek idatz ditzakete (2,7,24,39), ohizko hizkuntzan jargoi ez-medikua erabiliz eta osasun-informazio babesturik ez dagoela bermatuz (7). Bertan, pazienteak ZIUan ingresatzen duen lehen egunetik alta bitartean emandako gertakizunen kontakizun narratibo (24,39) eta kronologikoa egiten da (7), argazkien laguntzarekin (2,7,24). Erizain arduradunaren ardurapean, onarpenerako gertaerak eta hasierako tratamendua (7), eguneroko gertakizun/errutina (2,7), pazientearen bizitza, gaixotasun, bilakaera (2,7), burututako probak/prozedurak (7), errehabilitazio-egoera (2), pazientearen jakin-mina, bisitak, sentimenduak, gertaera garrantzitsuak (arnasketa-laguntza kentzea, ohetik altxatzea, familia jarduerak, alta) (7) eta abarri buruzko ohar orokorrak aldizka erregistratzen dira (2), gaixoei, beren gaixotasun larriaren istorioa islatu, eraiki eta berreraikitzea ahaldibidetuz (1,7,24,39).

Batzuentzat mingarria izan arren (7,39), egunerokoa irakurtzeak gaixoei gaixotasun nahiz lesioaren larritasuna ulertzen (7), memoria hutsuneak ulertu eta betetzen (1,7,24,40), benetako edo imajinatutako oroitzapen intrusiboen efektuak gutxitzen (1,24,40), gertatuakoa onartzen (7) eta sendatze itxaropenak egokitzen (40) lagun diezaioke, ZIUko egonaldia argituz eta koherentzia nahiz esanahiaren zentzua areagotuz (7,39). Eguneroko hauek, alta ostean, jarraipen elkarrizketetarako oinarri ere izan daitezke (1).

Erizainek egunerokoak esku-hartze holistiko eta humanizatzailetzat ikusten dituzte, gaixoa pertsonatzat hartuz, erizainek sentsibilitate eta enpatia handiagoa garatu baitezakete (7,39). Egunerokoen erabilera kultura desberdinetan garatzen ari den praktika bat da (39) eta hauek eraikitzeke erizainek erabil ditzaketen estrategiak aipatzen dituen dokumentu bakarra aurkitu da (7). Egunerokoen erabilerarako pazienteen aukeraketa irizpideak, hasiera, edukiak, idazkera, argazkien erabilera, parte-hartzaileak, kokalekua eta antolamenduaren inguruko datuak 7. eranskinean azaltzen dira.

ZIUko egunerokoa gaixoari entregatzeko momentu aproposari buruzko ikuspegiak desberdinak badira ere, 2018an Ameriketako Estatu Batuetan egindako ZIUko egunerokoen inguruko konferentzian, gaixoa erabat esna, kontziente eta emozionalki egonkor dagoenean eta gaixotasun eta errehabilitazio prozesuaren inguruan interesa azaltzen duenean partekatzea gomendatzen da (39).

4.3. Eskalak

Alta ematean jarraipenarekin lehenbailehen hasiera komeni denez, arrisku handiko pazienteak identifikatu eta lehenesteko ZIU-OSa ebaluatzea ahalbidetzen duten ondorengo eskalak erabil daitezke (12).

- The Post-Intensive Care Syndrome Questionnaire (PICSQ): arlo mental, kognitibo eta fisikoak integratzen dituen 18 item-eko galdetegia (41) (ikus 8. eranskina).
- The Healthy Aging Brain Care Monitor Self-report (HABC-M SR): azken bi asteetako denbora epea kontuan izanez domeinu funtzional, kognitibo eta psikologikoak ebaluatzen dituen auto administratutako 27 item-eko galdetegia (42) (ikus 9. eranskina).

Ospitaleko egonaldian zehar ZIU-OSa prebenitzeko esku-hartzeen inplementazioa bertako erizainaren esku geratzen den bezala, ZIUko alta osteko zainketak, lehen arreta mailako erizainaren ardurapean egongo dira (11).

5. EZTABAIDA

Lan honen helburua ZIU ospitaleratuta dauden paziente helduetan, ZIU-OSa ebaluatu eta prebenitzeko edo gaixoaren pronostikoa hobetzeko erizainak erabil ditzakeen tresna klinikoak aztertzea izan da. Erabilitako artikuluz guztiak bat etorri dira gaixotasun larriaren ondorioak prebenitu edo arintzeko zenbait esku-hartze bakarka ZIUko

gaixoen emaitzak hobetzen badituzte ere, inplementaziorako taldekatutako ikuspegi bat eraginkorragoa dela (2,14,18-21).

Mina ebaluatzeko NRS, BPS eta CPOT tresnak erabiltzean adostasuna aurkitu bada ere, (6,13,18,22,20), badaude egoerak non jokabide-eskalak erabiltzea ezinezkoa den, esaterako, estimuluei erantzuten ez dien eta RASS ≤ -4 duten pazienteetan. Gaur egun ez dago kasu hauetan erabilgarria izan daitekeen metodo alternatiborik eskuragarri, ZIU mina ebaluatzeko prozesuan baliagarriak izan daitezkeen beste teknologia batzuk aztertzea beharrezkoa delarik (18).

Azaleko sedazioa mantentzea ZIU-OSa prebenitzeko aipatua den esku-hartze bat bada ere, definitzerakoan ez da bateratasunik aurkitu. PADIS gidan RASS ≥ -2 puntuazioa eta begiak > 10 segunduz irekita mantetzea bezala definitzen baita (18) eta eCASHen, aldiz, RASS $-1/0$ puntuazio gisa, non pazienteak begi kontaktua mantentzeko, zaintzaile nahiz senitartekoekin elkarrengaitzeko, terapia fisiko edota okupazionalen parte hartzeko baina aldi berean, etenik gabe lo egiteko gai den (20). Beraz, ernetasun eta azaleko sedazioaren kontzeptuak gehiago aztertu behar dira (18).

Bestalde, azaleko sedazioa lortzeko EEPak edo sedazio protokoloak gomendatzerakoan eztabaida dagoela ikusi da, orain arte ez baita bata edo bestea hobea denik frogatu (18,20,22,24,27,28). Espainian (28) eta Korean (21) egindako ikerketetan, nahiz 2016an argitaratutako eCASH kontzeptuan (20) erizainek bideratutako sedazio protokoloek analgesiaren ebaluazioa ere barne hartzen dutenez (20,21,28), analgesiko eta lasaigarrien erabilera gutxitzen dutela (21), medikuaren preskripziopean egindako EEPak baino dinamikoagoak direla (28) eta EEPen beharra gutxituko luketela (20) azaltzen da. PADIS gidaren arabera eta López-López et al.-en (22) nahiz Warlan et al.-en (24) azterlanetan EEPak, aldiz, erizaintzako lan karga handitzearekin lotzen dira. PADIS gidan gainera, adierazpen medikurik egon ezean, egunean zehar behar baino sedazio sakonagoaren erabilera ez dagoela justifikatuta azpimarratzen da (18).

Tratamendu farmakologikoari dagokionez, dokumentu guztiak bat datoz sendagai ez benzodiazepinikoen (6,18,20,24,27,29) eta analgesiko ez-opioideen erabileran (18,20,23,24) oinarritutako analgesia eta sedazioaren kudeaketa eraginkor koordinatu batek epe luzera ZIU-OSaren prebentzioan lagundu dezakeela.

Eldarnioari aurre hartzeko estrategia ezin hobea zein den ez dago argi (30).

Aipatzekoa da osagai bakarreko neurrien artean, ingurune fisikoko esku-hartzeak (18,24,30-32), sedazioa murriztea (18,24,30,32), familiaren parte hartzea (18,30) eta mobilizazio programak (18,19,21,24,30-32) eldarnioaren prebentzioan erabilgarriak diren amankomunak diren bost interbentzio direla. Hala ere, 2019an Korean egindako ikerketa batean, aurrez eldarnioaren prebentziorako iradokitako esku-hartzeak bakarka erabiltzeak soilik eldarnioaren prebalentzia ez duela gutxitzen ikusi zen, eta tratamendu farmakologikoari erreparatzea ezinbestekoa dela (21), antikolinergiko, opioide eta sendagai lasaigarrien erabilera minimizatuz (6,21,29). Eldarnioaren arrisku faktore anitzak kontuan hartuta, egun, osagai anitzeko estrategien erabilera bultzatzen da (18,20,21,30,32).

ABCDEF sorta nahiz PADIS gidak mobilizazio goiztiarra barne hartzen badute ere, honen inplementazio eskasa ohiko arazoa dela dirudi (19). Esaterako, Espainia mailan ZIUen % 86ak ez dute mobilizazio protokolorik (28) eta Frantziako, Alemaniako, Erresuma Batuko eta Ameriketako Estatu Batuetako 951 ZIUtan mobilizazio goiztiarra % 40, % 59, % 52 eta % 45ean soilik erabiltzen da, hurrenez hurren (19). Mobilizazio goiztiarra definitzerakoan ere ez da bateratasunik aurkitu, ZIUko onarpeneko lehen hiru egunetan hasitako ariketa fisikoa (35), onarpenetik 48 orduko epean, lehen 24 orduetan edota intubazioaren ondorengo 1-2 egunetan burututako ariketa (33), ZIU onartua izan eta lehen bost egunetan hasitako errehabilitazioa (28) eta ZIUko bigarren eta bostgarren egunen bitartean egindako ariketa aktibo gisa definitua izan delarik (19).

Bestalde, mobilizazio goiztiarraren eraginkortasuna ebaluatzeko egindako ikerketa desberdinetatik ezin da ondorio zehatzik atera, ebaluaketa metodoak, edukiak eta aztertutako emaitzak oso heterogeneoak izan baitira (18,33,35,36). Errehabilitazio goiztiarra burutu ondoren hainbat hobekuntza aurki daitezke, adibidez, Fuke et al.-en arabera, epe laburreko funtzio fisikoan (35), PADIS gidaren arabera, ZIUko alta osteko giharren indarrean eta aireztapen mekanikoaren iraupena murriztean (18), Geense et al.-en arabera, ondorio mentaletan (36) eta Doiron et al.-en arabera, egoera funtzional independentera itzultzerakoan, giharren indarra handitzean, funtzio fisikoaren hobetzean eta ZIUko nahiz ospitaleko egonaldian eldarnioa gutxitzean (33). Esku-hartze honen eraginkortasunaren inguruan bateratasun batera heltzeko, azterketa gehiago egin beharko lirateke hasiera denbora, ariketa mota eta intentsitatearen arabera egokitutako errehabilitazio algoritmo zorrotz eta konparagarriak barne hartzen dituzten entsegu handiak burutuz (35).

Aipatutako beste esku-hartze eraginkor bat ZIUko egunerokoen erabilera izan da. Dokumentu gehienak bat datoz hauen erabilerak TOEarekin lotutako sintomak murrizten dituztela (2,6,39,40), gaixoen antsietate, depresio (2,36,39,40) eta osasunarekin lotutako bizi kalitatearen emaitzetan nahiz senideen TOEean eragin positiboa dutela (40) eta berreskurapen psikologikoa hobetu dezaketela esatean (39). Hala ere, egunerokoen praktika hobetzeko nahiz erizainek egunerokoak eraikitze erabil ditzaketen estrategiak aipatzen dituen dokumentu bakarra aurkitu da, erizainei kalitate terapeutikoko egunerokoak nola idatzi irakasteko hezkuntza-estrategiak ebaluatzen dituzten ikerketa falta nabaria izanik (7).

Aurkitutako dokumentu eta ikerketa gehienak atzerrian burututakoak dira. Espainia mailako datuak lortzeko, aldiz, zailtasunak aurkitu dira. Interesgarria izango litzateke gure inguruko egoera aztertu eta ezagutzeko, ZIUan lan egiten duten osasun profesionalen iritzia jasotzea. Horretarako, galdetegi bat prestatu da non ondorengoak ebaluatzeko hainbat galdera planteatzen diren: mina, sedazio nahiz eldarnioaren ebaluazioa, moilizazio goiztiarraren inplementazioa, familiaren inklusioa, egunerokoen erabilera eta egungo giden ezagutza maila (ikus 10. eranskina).

6. ONDORIOAK

ZIU-OSa ebaluatu eta prebenitzeko osagai anitzeko estrategiak dira, oro har, esku-hartzerik onenak, hala nola ABCDEF sorta edo eCASH. Minaren, sedazio mailaren eta eldarnioaren ebaluazio erregularrak egitea, sedazio protokolo nahiz EEPak erabiliz sedazioa murriztea, ingurune lasai eta eroso bat eskaintzea, errehabilitazio goiztiarraren inplementazioa eta familiaren parte-hartzea, ZIU-OSaren prebentzioan eraginkorrak direnaren ebidentzia dago, baita erizainak esku-hartze horien ezarpenean duen garrantziarena ere.

Baliabide farmakologikoen artean, berriz, posible denean sendagai ez bentzodiazepiniko eta ez opioideak lehen lerroko tratamendu gisa baloratu beharko liratekela ondorioztatu da, opioide eta bentzodiazepinen albo-ondorioak ekiditeko.

Bestalde, ZIUko egunerokoen erabilera gaixotasun kritikoaren ondorengo osasun mentaleko arazoaren prebentzioan baliagarria dela ikusi da, pertsona hauek garatzen dituzten oroitzapen engainagarri eta faltsuak tratatu eta errekupeazio psikosoziala sustatuz.

Ospitaleko alta ostean ZIU-OSarekin lotutako arazoan ebaluazio jarraiarekin goiz hasia komeni da, arrisku handiko pazienteen artean lehenetsiz eta identifikazio tresna eraginkorrek erabiliz, hala nola, PICSQ edo HABC-M SR.

Azkenik, arlo honetan ikerketa gehiago egiteko beharra ere agerikoa da, ikerketa-irizpideen estandarizazioa garrantzitsua dela ondorioztatuz.

7. BIBLIOGRAFIA

- (1) Svenningsen H, Langhorn L, Ågård AS, Dreyer P. Post-ICU symptoms, consequences and follow up: an integrative review. *Nurs Crit Care* [Internet]. 2017 [atzitze data: 2020/12/22];22(4):212-220. doi: 10.1111/nicc.12165
- (2) Inoue S, Hatakeyama J, Kondo Y, Hifumi T, Sakuramoto H, Kawasaki T, et al. Post-intensive care syndrome: its pathophysiology, prevention, and future directions. *Acute Med Surg* [Internet]. 2019 [atzitze data: 2020/12/22];6(3):233-246. doi: 10.1002/ams2.415
- (3) Mehlhorn J, Freytag A, Schmidt K, Brunkhorst FM, Graf J, Troitzsch U, et al. Rehabilitation interventions for postintensive care syndrome: a systematic review. *Crit Care Med* [Internet]. 2014 [atzitze data: 2020/11/15];42(5):1263-71. doi: 10.1097/CCM.000000000000148
- (4) Hanifa ALB, Glæemose AO, Laursen BS. Picking up the pieces: Qualitative evaluation of follow-up consultations post intensive care admission. *Intensive Crit Care Nurs* [Internet]. 2018 [atzitze data: 2020/11/20];48:85-91. doi: 10.1016/j.iccn.2018.06.004
- (5) Lee M, Kang J, Jeong YJ. Risk factors for post-intensive care syndrome: A systematic review and meta-analysis. *Aust Crit Care* [Internet]. 2020 [atzitze data: 2020/12/22];33(3):287-294. doi: 10.1016/j.aucc.2019.10.004
- (6) Bryant SE, McNabb K. Postintensive Care Syndrome. *Crit Care Nurs Clin North Am* [Internet]. 2019 [atzitze data: 2020/12/17];31(4):507-516. doi: 10.1016/j.cnc.2019.07.006.
- (7) Halm MA. Intensive Care Unit Diaries, Part 1: Constructing Illness Narratives to Promote Recovery After Critical Illness. *Am J Crit Care* [Internet]. 2019 [atzitze data: 2020/12/27];28(4):319-323. doi: 10.4037/ajcc2019731.
- (8) Colbenson GA, Johnson A, Wilson ME. Post-intensive care syndrome: impact, prevention, and management. *Breathe (Sheff)* [Internet]. 2019 [atzitze data: 2020/12/22];15(2):98-101. doi: 10.1183/20734735.0013-2019.
- (9) Busico M, das Neves A, Carini F, Pedace M, Villalba D, Foster C, et al. Programa de seguimiento al alta de la unidad de cuidados intensivos. *Med Intensiva* [Internet]. 2019 [atzitze data: 2020/12/22];43(4):243-254. doi: 10.1016/j.medin.2018.12.005.

- (10) Smith S, Rahman O. Post Intensive Care Syndrome. In: StatPearls [Internet]. Treasure Island (FL): StatPearls Publishing; 2020. Eskuragarri: <https://www.ncbi.nlm.nih.gov/books/NBK558964/>
- (11) Brown SM, Bose S, Banner-Goodspeed V, Beesley SJ, Dinglas VD, Hopkins RO, et al. Approaches to Addressing Post-Intensive Care Syndrome among Intensive Care Unit Survivors. A Narrative Review. *Ann Am Thorac Soc* [Internet]. 2019 [atzitze-data: 2020/12/17];16(8):947-956. doi: 10.1513/AnnalsATS.201812-913FR.
- (12) Mikkelsen ME, Still M, Anderson BJ, Bienvenu OJ, Brodsky MB, Brummel N, et al. Society of Critical Care Medicine's International Consensus Conference on Prediction and Identification of Long-Term Impairments After Critical Illness. *Crit Care Med* [Internet]. 2020 [atzitze-data: 2021/1/15];48(11):1670-1679. doi: 10.1097/CCM.0000000000004586.
- (13) Fernandes A, Jaeger MS, Chudow M. Post-intensive care syndrome: A review of preventive strategies and follow-up care. *Am J Health Syst Pharm* [Internet]. 2019 [atzitze data: 2020/12/22];76(2):119-122. doi: 10.1093/ajhp/zxy009.
- (14) Morandi A, Piva S, Ely EW, Myatra SN, Salluh JIF, Amare D, et al. Worldwide Survey of the "Assessing Pain, Both Spontaneous Awakening and Breathing Trials, Choice of Drugs, Delirium Monitoring/Management, Early Exercise/Mobility, and Family Empowerment" (ABCDEF) Bundle. *Crit Care Med* [Internet]. 2017 [atzitze data: 2020/12/28];45(11):e1111-e1122. doi: 10.1097/CCM.0000000000002640
- (15) Hsieh SJ, Otusanya O, Gershengorn HB, Hope AA, Dayton C, Levi D, et al. Staged Implementation of Awakening and Breathing, Coordination, Delirium Monitoring and Management, and Early Mobilization Bundle Improves Patient Outcomes and Reduces Hospital Costs. *Crit Care Med* [Internet]. 2019 [atzitze data: 2020/12/29];47(7):885-893. doi: 10.1097/CCM.0000000000003765.
- (16) C. Robertson D, Penzo-Mendez A. Post-ICU Syndrome: The Coming Wave That Needs Attention Now. *ECRI* [Internet]. 2020 [atzitze data: 2020/12/6].
- (17) Alper BS, Haynes RB. EBHC pyramid 5.0 for accessing preappraised evidence and guidance. *Evid Based Med* [Internet] 2016 atzitze data: 2019ko abenduak 3]; 21(4): 123-125. Eskuragarri: <https://ebm.bmj.com/content/ebmed/21/4/123.full.pdf>.
- (18) Devlin JW, Skrobik Y, Gélinas C, Needham DM, Slooter AJC, Pandharipande PP,

et al. Clinical Practice Guidelines for the Prevention and Management of Pain, Agitation/Sedation, Delirium, Immobility, and Sleep Disruption in Adult Patients in the ICU. *Crit Care Med* [Internet]. 2018 [atzitze data: 2020/12/26];46(9):e825-e873. doi: 10.1097/CCM.0000000000003299.

(19) Hermes C, Acevedo-Nuevo M, Berry A, Kjellgren T, Negro A, Massarotto P. Gaps in pain, agitation and delirium management in intensive care: Outputs from a nurse workshop. *Intensive Crit Care Nurs* [Internet]. 2018 [atzitze data: 2020/12/22];48:52-60. doi: 10.1016/j.iccn.2018.01.008.

(20) Vincent JL, Shehabi Y, Walsh TS, Pandharipande PP, Ball JA, Spronk P, et al. Comfort and patient-centred care without excessive sedation: the eCASH concept. *Intensive Care Med* [Internet]. 2016 [atzitze-data: 2021/1/15];42(6):962-971. doi:10.1007/s00134-016-4297-4.

(21) Lee Y, Kim K, Lim C, Kim JS. Effects of the ABCDE bundle on the prevention of post-intensive care syndrome: A retrospective study. *J Adv Nurs* [Internet]. 2020 [atzitze data: 2020/12/22];76(2):588-599. doi: 10.1111/jan.14267.

(22) López-López C, Robleda-Font G, Frade-Mera MJ, Gil-Castillejos D, Sánchez-Sánchez MM, Acevedo-Nuevo M, et al. Guía de práctica clínica del American College of Critical Care Medicine sobre prevención y manejo del dolor, agitación/sedación, contenciones mecánicas, delirio, inmovilidad y alteraciones del sueño del paciente adulto. *Enferm. intensiva* [Internet]. 2019 [atzitze data: 2020/12/30];30(1): 38-42. doi: 10.1097/CCM.0000000000003299.

(23) Preiser JC, Herridge M, Azoulay E. Post-Intensive Care Syndrome [Internet]. Switzerland: European Society of Intensive Care Medicin; 2020 [atzitze-data: 2020/12/28]. Eskuragarri: [https://link-springer-com.ehu.idm.oclc.org/content/dfg/10.1007%2F978-3-030-24250-3.pdf](https://link.springer.com.ehu.idm.oclc.org/content/dfg/10.1007%2F978-3-030-24250-3.pdf)

(24) Warlan H, Howland L. Posttraumatic stress syndrome associated with stays in the intensive care unit: importance of nurses' involvement. *Crit Care Nurse* [Internet]. 2015 [atzitze data: 2020/12/28];35(3):44-52. doi: 10.4037/ccn2015758.

(25) Gélinas C, Puntillo KA, Levin P, Azoulay E. The Behavior Pain Assessment Tool for critically ill adults: a validation study in 28 countries. *Pain* [Internet]. 2017 [atzitze data: 2021/2/17];158(5):811-821. doi: 10.1097/j.pain.0000000000000834.

- (26) Rijkenberg S, Stilma W, Endeman H, Bosman RJ, Oudemans-van Straaten HM. Pain measurement in mechanically ventilated critically ill patients: Behavioral Pain Scale versus Critical-Care Pain Observation Tool. *J Crit Care* [Internet]. 2015 [atzitze data: 2021/2/17];30(1):167-172. doi: 10.1016/j.jcrc.2014.09.007.
- (27) Balas MC, Vasilevskis EE, Burke WJ, Boehm L, Pun BT, Olsen KM, et al. Critical care nurses' role in implementing the "ABCDE bundle" into practice. *Crit Care Nurse* [Internet]. 2012 [atzitze data: 2020/12/28];32(2):35-48. doi: 10.4037/ccn2012229.
- (28) Raurell-Torredà M, Arias-Rivera S, Martí JD, Frade-Mera MJ, Zaragoza-García I, Gallart E, et al. Degree of implementation of preventive strategies for post-ICU syndrome: Multi-centre, observational study in Spain. *Enferm Intensiva* [Internet]. 2019 [atzitze data: 2020/12/22];30(2):59-71. doi: 10.1016/j.enfi.2018.04.004.
- (29) Fernandez-Gonzalo S, Turon M, De Haro C, López-Aguilar J, Jodar M, Blanch L. Do sedation and analgesia contribute to long-term cognitive dysfunction in critical care survivors? *Med Intensiva* [Internet]. 2018 [atzitze data: 2020/12/22];42(2):114-128. doi: 10.1016/j.medin.2017.06.010.
- (30) Deng LX, Cao L, Zhang LN, Peng XB, Zhang L. Non-pharmacological interventions to reduce the incidence and duration of delirium in critically ill patients: A systematic review and network meta-analysis. *J Crit Care* [Internet]. 2020 [atzitze data: 2020/12/29];60:241-248. doi: 10.1016/j.jcrc.2020.08.019.
- (31) Lynch J, Rolls K, Hou YC, Hedges S, Al Sayfe M, Shunker SA, et al. Delirium in intensive care: A stepped-wedge cluster randomised controlled trial for a nurse-led intervention to reduce the incidence and duration of delirium among adults admitted to the intensive care unit (protocol). *Aust Crit Care* [Internet]. 2020 [atzitze data: 2020/12/29];33(5):475-479. doi: 10.1016/j.aucc.2019.12.003.
- (32) Luetz A, Grunow JJ, Mörgeli R, Rosenthal M, Weber-Carstens S, Weiss B, et al. Innovative ICU Solutions to Prevent and Reduce Delirium and Post-Intensive Care Unit Syndrome. *Semin Respir Crit Care Med* [Internet]. 2019 [atzitze data: 2020/12/26];40(5):673-686. doi: 10.1055/s-0039-1698404.
- (33) Doiron KA, Hoffmann TC, Beller EM. Early intervention (mobilization or active exercise) for critically ill adults in the intensive care unit. *Cochrane Database Syst Rev* [Internet]. 2018 [atzitze data: 2020/12/22];3(3):CD010754. doi: 10.1002/14651858.CD010754.pub2.

- (34) Young DL, Seltzer J, Glover M, Outten C, Lavezza A, Manthey E, et al. Identifying Barriers to Nurse-Facilitated Patient Mobility in the Intensive Care Unit. *Am J Crit Care* [Internet]. 2018 [atzitze data: 2020/12/30];27(3):186-193. doi: 10.4037/ajcc2018368.
- (35) Fuke R, Hifumi T, Kondo Y, Hatakeyama J, Takei T, Yamakawa K, et al. Early rehabilitation to prevent postintensive care syndrome in patients with critical illness: a systematic review and meta-analysis. *BMJ Open* [Internet]. 2018 [atzitze-data: 2020/12/17];8(5):e019998. doi: 10.1136/bmjopen-2017-019998.
- (36) Geense WW, van den Boogaard M, van der Hoeven JG, Vermeulen H, Hannink G, Zegers M. Nonpharmacologic Interventions to Prevent or Mitigate Adverse Long-Term Outcomes Among ICU Survivors: A Systematic Review and Meta-Analysis. *Crit Care Med* [Internet]. 2019 [atzitze data: 2020/12/17];47(11):1607-1618. doi: 10.1097/CCM.0000000000003974.
- (37) Agency for Healthcare Research and Quality [Internet]. Rockville (MD): Nurse-Driven Early Mobility Protocols: Facilitator Guide; 2017 January [atzitze data: 2021/2/15]. Eskuragarri: <https://www.ahrq.gov/hai/tools/mvp/modules/technical/nurse-early-mobility-protocols-fac-guide.html>
- (38) Velasco JM, Ortega A, Gómez D, Lozano F, Del Barrio M. Recomendaciones sobre acogida de familiares en unidades de cuidados intensivos. SEEIUC: Grupos de trabajo bioética; 2017. Eskuragarri: <http://seeiuc.org/wp-content/uploads/2017/10/RECOMENDACIONES-FAMILIAS.pdf>
- (39) Nydahl P, Egerod I, Hosey MM, Needham DM, Jones C, Bienvenu OJJ. Report on the Third International Intensive Care Unit Diary Conference. *Crit Care Nurse* [Internet]. 2020 [atzitze data: 2020/12/22];40(5):e18-e25. doi: 10.4037/ccn2020958.
- (40) Halm MA. Intensive Care Unit Diaries, Part 2: Impact of Diaries and Follow-up Consultation on Post-Intensive Care Syndrome. *Am J Crit Care* [Internet]. 2019 [atzitze data: 2020/12/22];28(6):488-492. doi: 10.4037/ajcc2019839.
- (41) Jeong YJ, Kang J. Development and validation of a questionnaire to measure post-intensive care syndrome. *Intensive Crit Care Nurs* [Internet]. 2019 [atzitze data: 2020/12/26];55:102756. doi: 10.1016/j.iccn.2019.102756.
- (42) Wang S, Allen D, Perkins A, Monahan P, Khan S, Lasiter S, et al. Validation of a New Clinical Tool for Post-Intensive Care Syndrome. *Am J Crit Care* [Internet]. 2019 [atzitze-data: 2020/12/17];28(1):10-18. doi: 10.4037/ajcc2019639.

8. ERANSKINAK

1. eranskina. Datu baseetan lortutako emaitzak.

Datu Basea	Bilaketa katea	Artikuluak	Iragazkiak	Artikuluak		Hautatutakoak	Billaketa data
PUBMED	"Postintensive care syndrome"	69	Azken 5 urteak Hizkuntza: euskara, ingelesa, gaztelania	61	B A R N E R A T Z E E T A K A N P O R A T Z E I R I Z P I D E A K	5	2020/12/17
	("postintensive care syndrome") AND ((nursing) OR (nursing care))	15	Azken 5 urteak Hizkuntza: euskara, ingelesa, gaztelania	14		0	2020/12/17
	"postintensive care syndrome" [Supplementary Concept]	16	Ez dira erabili	16		0	2020/12/17
	("postintensive care syndrome") AND (prevention)	16	Azken 5 urteak	13		0	2020/12/17
	(post intensive care syndrome) AND (prevention)	66	Azken 5 urteak Hizkuntza: euskara, ingelesa, gaztelania	50		5	2020/12/17
	(post intensive care unit syndrome) AND (nursing care)	123	Azken 5 urteak Hizkuntza: euskara, ingelesa, gaztelania	98		5	2020/12/17
	("Postintensive care síndrome") AND (prevention and control)	6	Hizkuntza: euskara, ingelesa, gaztelania	6		0	2020/12/17
	((critical care outcomes) OR ("Post-ICU syndrome")) AND ((nursing care)OR (critical care nursing)) AND (prevention)	1.236	Azken 5 urteak Hizkuntza: euskara, ingelesa, gaztelania Artikulu mota: errebisio sistematikoa	106		1	2020/12/29
	((critical care outcomes) OR ("postintensive care syndrome")) AND (prevention and control)) AND (nursing care)	614	Azken 5 urteak Hizkuntza: euskara, ingelesa, gaztelania Testu osoa	110		1	2020/12/29
	((("postintensive care syndrome") OR (critical illness)) AND (critical care nursing)) AND (prevention)	991	Azken 5 urteak Hizkuntza: euskara, ingelesa, gaztelania Artikulu mota: errebisio sistematikoa	40		0	2020/12/29
	((("postintensive care syndrome") OR (critical illness)) AND (prevention and control)	4922	Azken 5 urteak Hizkuntza: euskara, ingelesa, gaztelania Artikulu mota: erizaintzako aldizkaria	141		1	2020/12/29
	("postintensive care syndrome") AND (risk factors)	9	Azken 5 urteak Hizkuntza: euskara, ingelesa, gaztelania	7		0	2021/1/15

	("post intensive care syndrome") AND (risk factors)	28	Azken 5 urteak Hizkuntza: euskara, ingelesa, gaztelania	23	B A R N E R A T Z E	1	2021/1/15
	("post-ICU syndrome") AND (risk factors)	5	Azken 5 urteak Hizkuntza: euskara, ingelesa, gaztelania	5		0	2021/1/15
	((clinical tool) AND ("postintensive care syndrome")) AND (nursing care)	1	Ez dira erabili	1		0	2021/2/15
	(clinical tool) AND ("postintensive care syndrome")	3	Ez dira erabili	3		0	2021/2/15
	("Post intensive care syndrome") AND (clinical tool)	6	Ez dira erabili	6		0	2021/2/15
COCHRANE	"post intensive care syndrome" AND prevention	Cochrane reviews 3 Trials 6	-	Cochrane reviews 3 Trials 6	E T A K A N P O R A T Z E	1	2020/12/22
	"post intensive care syndrome" AND nursing care	Cochrane reviews 1 Trials 3	-	Cochrane reviews 1 Trials 3		0	2020/12/22
BVS	(Enfermería de cuidados criticos) OR (Atención de enfermería) AND ("Síndrome post-UCI")	1	Ez dira erabili	1		0	2020/12/22
	(Prevención y control) AND ("Síndrome post-UCI")	2	Ez dira erabili	2		0	2020/12/22
	(Síndrome post-UCI) AND (prevención y control)	150	Azken 5 urteak	53		1	2020/12/22
	(Enfermedad critica) AND (Atención de enfermería)	553	Azken 5 urteak Gai nagusia zainketa kritikoen erizaintza Hizkuntza: ingelesa eta gaztelania	71		0	2020/12/22
	Síndrome post unidad de cuidados intensivos	308	Azken 5 urteak Gai nagusia: zainketa intentsiboetako unitatea Hizkuntza: ingelesa eta gaztelania	89		0	2020/12/22
	(Resultados de Cuidados Críticos) OR ("Síndrome post-UCI") AND (prevención y control) AND (atención de enfermería)	1	-	1	0	2020/12/28	
(síndrome post cuidados intensivos) OR (Resultados de Cuidados Críticos) AND (prevención)	1147	Azken 5 urteak Ingelesa eta gaztelania Artikulu mota: errebisio sistematikoa	25	I R I Z P I D E A K	0	2020/12/28	

	(síndrome post cuidados intensivos) OR (Resultados de Cuidados Críticos) AND (prevención) AND (nursing care)	281	Azken 5 urteak Ingelesa eta gaztelania	68	B A R N E R A T Z E E T A K A N P O R A T Z E I R I Z P I D E A K	0	2020/12/28
	(factores de riesgo) AND ("Síndrome post-UCI")	0	-	0		0	2021/1/15
	(risk factors) AND ("postintensive care syndrome")	8	Azken 5 urteak	5		0	2021/1/15
DIALNET	"Síndrome post-UCI" AND Enfermería	1	Ez dira erabili	1		0	2020/12/22
	Resultados de cuidados críticos AND prevención AND atención de enfermería	21	-	21		0	2020/12/22
	Síndrome post cuidados intensivos	35	Azken 10 urteak	29		1	2020/12/22
	Síndrome AND unidad de cuidados intensivos AND enfermería	32	Azken 10 urteak	22		0	2020/12/28
SCOPUS	Resultados de cuidados críticos AND prevención AND atención de enfermería	21	-	21		0	2020/12/28
	Síndrome post-UCI AND prevención	80	2010-2019	63		0	2020/12/28
	Síndrome post-UCI AND enfermería	56	2010-2019	43		0	2020/12/28
	"Post-ICU syndrome" AND nursing care	77	Azken 5 urteak Gai nagusia: erizaintza	34	1	2020/12/27	
TRIP	"Post-ICU syndrome" AND (prevention and control)	15	Azken 5 urteak	15	1	2020/12/27	
